



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2017KO ABUZTUAREN 11KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2017.08.11.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.
Zinegotziak:
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.(3. puntuan sartu da)
Igor Ugalde Salazar jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespina.
- 2.-Margarita Vergara Vergara andrea: oihan probetxamenduaren eskaera.
- 3.-Hirigintzako Udal Plana esleitzeko baldintzak.
- 4.-2017-2019 Toki Inbertsioen Plana.
- 5.-Arantzako bestak.
- 6.-Alkatearen ebazpenak.
- 7.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2017ko uztailaren 5ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-MARGARITA VERGARA VERGARA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDUAREN ESKAERA.

Ikusirik Margarita Vergara Vergara andreak aurkeztutako eskaera, Irullegi alderdian dagoen pinudiaren probetxamendua egiteko (matarrasa), 6. poligonoko 221. lurzatian.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Margarita Vergara Vergara andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

3.-HIRIGINTZAKO UDAL PLANA ESLEITZEKO BALDINTZAK.

Nafarroako Gobernuak, 2017ko maiatzaren 24ko akordioaren bidez, onartu du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua eta Arantzako Udalaren artean Udal Plan Orokorra egiteko hitzarmena. Honen bidez 76.000,00 euroko diru laguntza eman du.

Halaber, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuko Kontseilariak eta Arantzako Alkateak sinatu dute hitzarmena 2017ko ekainaren 17an.

Kontuan hartuz hurrengo tramitea plana egiteko lanak esleitzea dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udal Plan Orokorra esleitzeko baldintza plegu prestatzea.

4.-2017-2019 TOKI INBERTSIOEN PLANA.

2016ko abenduaren 19ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 242. alean, argitaratu zen 18/2016 Foru Legea, 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duena.

Arantzako Udalak eskatutako lanak hauek izan ziren:

1.-Bizitoki iraunkorretara doazen eta biziguneen arteko bideei dagozkien inbertsioen atala: Aranako erreka bidea, Albizko bidea, Haritzondo-Etxezarretako bidea, Mainbordako bidea eta Bordalarreako bidea. Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak emandako 303/2017 ebazpenaren bidez behin behinekoz onartuak izan dira eskatutako bide guztiak.

2.-Udal ekipamenduak eraikuntzako arau teknikora egokitzeko atala: Herriko Etxean eskailerak gainditzeko gailu bat instalatzea. Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak emandako 307/2017 ebazpenaren bidez behin behinekoz onartua izan da.

3.-Sarerik gabeko zolatze lanen atala: Goienburu karrika eta Salvatore karrika: Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak emandako 314/2017 ebazpenaren bidez ez dira behin behinekoz onartua izan.

4.-Sareekin batera zoladurak moldatzeko atala: Salvatore karrika, Goiko Karrika eta Eliza Karrika. Oraindik ez da ebatzi atal hau.

Idazkariak adierazi du behin behinekoz onartzen dituzten ebazpenei alegazioak aurkezten ahalko direla, argitaratzen denetik hasita, 15 eguneko egun balioduneko epean.

Kontuan hartuz Goienburu karrika eta Salvatore karrika kanpoan gelditu direla, ebazpenaren arabera 18/2016 Foru Legearen ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Ikertzea Goienburu karrika eta Salvatore karrikak moldatzeko obren espedienteak alegazioak aurkezteko.



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

5.-ARANTZAKO BESTAK.

Ikusirik 2017ko bestetako egitaraua, 14tik 17ra, biak barne.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2017ko bestetako egitaraua onartzea.

6.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2017ko 86. ebazpenetik 109. ebazpena arte.

7.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

8.-JOSE ANTONIO YUBERO ESTEFANO JAUNAK JARRITAKO ALTXADAKO ERREKURTSOARI BURUZKO TXOSTENA.

Ikusirik Nafarroako Administrazio Auzitegiak igorritako idatzia, Jose Antonio Yubero Estefano jaunak aurkeztutako altxadako errekurtsuari buruz (17-00508 zenbaki duena).

Ikusirik Udaleko abokatuak prestatutako txostena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Marcos Erro Martinez abokatuak prestatutako txostena onartzea eta akordio honekin batera igortzea.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Mentxu Peña Lizarazu and.



